



Borrokatzan jarraitzeko prest

Ehunka herritarrek bat egin dute Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitutako greba orokorrarekin; zaintza izan da ardatza / 2

TXINTXARRI

Euskara ardatz hartutakoak

Euskararen Eguna medio, askotariko ekimen eta egitasmoak jarri dituzte martxan Lasarte-Orian / 8-9

Bookstart Euskadi egitasmoa abian jarri dute Lasarte-Orian, 0 eta 3 urte arteko haurrentzat / 4

Gaztainzuloko bizilagunek udalari eskatu diote kale horretako pasabidea argiztatzeko / 5

"Frankismoaren basakeria" jasan dutenen omenez monolitoa jarri du Islada Ezkutatuak-ek / 6

Ostadar SKTko Boleibol taldeen derbian senior taldearen esperientzia gailendu da / 10

Lasarte-Oriako kirolariak ederki jardun dira errepide zein pistako proba ezberdinetan / 12

TXINTXARRI-k bat egin du Mugimendu Feministak deitutako Greba Orokorrarekin / 7, 11

2mó 99€

erreflexuen aurkako betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiplicas.com



Mugarri garrantzitsua izan da greba feminista

"Zaintza sistema publiko komunitario baten eta bizitza duinen alde" borrokatzeko prest eta gogoz daudela erakutsi dute ehunka lasarteoriarrek, Euskal Herriko Mugimendu Feministak egindako lanuzte deialdi arrakastatsuekin bat eginda

Iñigo Gonzalez Sarobe

Behin eta berriro erakutsi du Lasarte-Oriak herri borrokalaria dela, esate baterako, euskararen alorrean. Izaera hori odolean daramate herritarrek eta beste behin frogatu dute hala dela, Euskal Herriko Mugimendu Feministak gehiengo sindikalaren babesarekin azaroaren 30ean aurrera eramanako greba orokorrarekin bat eginda. Argi eta ozen adierazi zuten "zaintza sistema publiko komunitario baten beharra" eta "bizitza duinen alde borrokatzeko prest" daudela.

Beste herri ugarian egin bezala, gure herriko bizilagun batzuek batzorde bat eratu zuten, lanuztearen egunean zer eta nola egin erabakitzeko. Egunari ekitako "ekintza ikusgarri bat" egingo zutela iragarri zuten, bai eta aurrera eraman ere: 08:30ean Tajamar biribilguneko sarbide guztiak moztu zituzten, hamar minutuz, grebarekin bat egin ordez lanera joatea erabaki ala beste erremediorik izan ez zutenen (zerbitzu minimoak emateko, adibidez) erritmoa eteteko. Oro har, ez zuten arazorik izan, pare bat auto gidarirekin salbu:

ekintzaileek jarritako zintak ebakitzearekin aski ez eta ibilgailuak martxan jarri zituzten, parean zituztenen osasuna arriskuan jarrita. Edonola ere, inor ez zen zauritu ezta kikildu ere, tinko eutsi baitzioten ekimenari.

Zaintzaren egoera ikusarazten

Ordubete geroago abiatu zen herriko zaintzaren egoera azalratzea helburu zuen kale bira, Okendo plazatik. Partaide ugari jarri ziren *Zaintza sistema publikoa orain!* lelodun pankartaren atzean. Hauek izan ziren geltokiak: Maialen Chourraut kiroldegia, osasun zentroa, udaltea, Oriarte Landaberri ikastetxea, Matia fundazioaren egoitza, Michelin Lasarte lantegia, ADI Etxeko Laguntza Zerbitzuak-en lokala, Atsobakar adinekoen egoitza eta Mirentxu eraikina (udalak bertatik kudeatzen du Gizarte Zerbitzuen saila).

Orotariko aldarriak oihukatu zituzten bidean, geltoki eta alor zehatz batzuekin zerikusia zutenak nahiz orokorrakoak, hala nola, *Zaintzarekin negoziarik ez, Berdintasun teknikaria orain edota Mikel, cariño, esta noche baños tú*

al niño (Mikel, laztana, gaur gauean zuk bainatuko duzu umea).

"Bizitza duinen alde"

Azken aldarri oihu horrek gizonak interpelatzen ditu zuzenean, horiek ere zaintzaren gaineko ardura har dezaten. Ideia hori eta beste hainbat partekatu zituzten Okendon eguerdian egindako elkarretaratze jendetsuan. Earra bertso eskolako bi ikaslek botatako bertso ederren ostean, batzorde antolatzaileko bi kidek manifestua irakurri zuten, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Nabarmendu zuten lanuzte orokorra ez dela izan helburu nagusia, zaintza sistema publiko komunitario baterantz "mugarri bat" baizik. "Denok izango gara noizbait zainduak eta guztioi dago-kigu zaintzaren ardura modu kolektiboan hartzea; bizitza duinen aldeko borroka da hau".

Bukatzeko, bertaratutako ehunka herritarrek Xumela koruko lagunekin batera abestu eta dantzatu zituzten *Txoria txori* eta *Epo i tai tai e*.

Bazkalostean, asko izan ziren eskualdeko manifestaziora joan zirenak, Hernanira.



Tajamar biribilgunera sarbideak moztu zituzten goizeko lehen orduan. TXINTXARRI



Kale bira egitearekin batera herriko zaintzaren egoera ikusarazi zuten. TXINTXARRI



Gaur egungo zaintza sistemaren aurkako aldarriak egin zituzten. TXINTXARRI



Eguerdiko elkarretaratzean jendetza bildu zen, zaintza sistema publiko eta komunitario bat eskatzeko. TXINTXARRI



Kantu, dantza eta irrintziak ez ziren falta izan. TXINTXARRI

Gaur egungo eta etorkizuneko zaintzaz

Bigarren saio irekia aurrera eraman du Borobileen elkarteak alor horretako profesional, erabiltzaile eta udal ordezkariak gonbidatuta. Herritarren artean jakin mina piztu du gaiak eta txiki utzi dute Oriarte Landaberri institutuko aretoa

Txintxarri

Zaintza lanak "bizitza sostengatzeko ezinbestekoak" direla nabarmendu dute Borobileen elkarteak kideek eta zeregin horiek gaur egun "feminizatuak, ikustezinak, prekarizatuak eta pribatizatuak" direla. Ildo horretatik, eredu pribatura mugatzen den eredu eraldatzeko egin beharrezkoak gogoeta eragiteko saio bat aurrera eraman zuten azaroaren 23an, honako pertsona hauek Oriarte Landaberri ikastetxera gonbidatuta: Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrieta, Maitelan kooperatibako kide Elisa Pereda, Atsotakar egoitzako langile Esti Amantegi eta Margari Ibeas, Zorroaga Fundazioko behargin Sorkunde Agirre, Izan Iñurri elkarteak kide Sandra Barkaiztegi eta Norma Andrade, Asunak talde feministako kide Susi Sanz, Olatz Arozena sindikalista eta zaintza prestazioak behar izan dituen pertsona baten senide Patxi Azpiroz. Borobileeneko kide Ixiar Arteagak moderatu zuten saioa.

Zaintzaren gainean "lau urteko master intentsibo bat" egina duela adierazi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrietak, "asko" ikasten ari dela "jendearen bizitza aldatu eta hobetzeko bidean". Halaber, eskerrak eman zizkien Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzue-



Lasarteoriatar ugari bertaratu ziren saio irekira. TXINTXARRI

tako langileei, "motore" baitira lanketa horretan guztian. Zaintza eredu eraldatzeko helburu horretangeldialdirik egingabe, martxan jarritakoa ebaluatzea "berebizikoa" dela iruditzen zaio eta onartu du "gabezia batzuk" detektatu dituztela, hala nola, prozesu horretako partaide gehienak 60 urte baino gehiagoko emakumeak direla. "Edo lortzen dugu komunitateko kide guztiak eta batez ere gizonak bide honetan inplikatzeko, edo salatzen ari garen hori erreproduzitzeko dugu bestela beste behin, zama emakumeena izatea".

Maitelan kooperatiba ere izan zuten hizpide mahai inguru horretan, bertako kide den Elisa Peredaren eskutik. 2020an jarri zuten abian egitasmo hori zenbait emakumek, "zaintza alorreko langileen baldintzez eta pertsonen arretaz hitz egin eta horiek hobetzeko helburuarekin". Peredak nabarmendu zuen "ezinbestekoak" direla zeregin horiek eta gaur egun ez direla "modu parekidean" banatzen, horien zama "emakumeek eta zehazki migratzaile eta arrazializatuak direnek" daramatelako, "modu zaugarri eta prekarioan".

Begiak ireki eta ahoak zabaldu dizkie Bea Egizabalek

Clown lasarteoriatarren 'Magma mia' bakarrizketa izan da Azaroaren 25eko egitarauko azken ikuskizuna

Txintxarri

"Sistema batean bizi gara, eta heteropatriarkala da". Esaldi kategoriko horri ekin dio *Magma mia* bakarrizketa ikuskizunari Bea Egizabal clownak, eta ondoren zehaztu zazpi hitz horiek esan

nahi duten guztia, ateraldi umoretsu ugari bota bitartean ikus-entzuleek gogoeta egitea eraginda. Ahoa behin baino gehiagotan zabaldu die umoristak parean zituenei, etengabe barre eragin dielako, eta baita begiak ireki ere,

emanaldian zehar taula gainera ekarri dituen kontzeptuen gainean hausnarrarazita.

'Ni naiz naizena'

Egizabalena izan da udalak Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira aurrean antolatutako azken ikuskizuna. Edonola ere, gogorarazi du gaur arte (hilak 1) zabalik dagoela *Ni naiz naizena* erakusketa, hamar pertsona transen bizipenekin ondutakoa. Kultur etxeko 1. solairuan dago.



'Emakumeen aurkako indarkeriari ez' lelodun pankarta erakutsi dute. TXINTXARRI

Emakumeen aurkako indarkeria gaitzetsi dute elkarretaratzean

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren ekintza nagusia izan da; 80 lagun inguru bildu dira Okendon

Txintxarri

Egunak daramatzate udaletxeko aurrealdean emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten duten zenbait ikur eta haiei batu zizkieten indarkeria matxistaren datuak biltzen dituzten afixak azaroaren 25ean. Arkupeetako zutoinetan jarrita, haietako bakoitzean Lasarte-Orian, Gipuzkoan, EAEn eta Espainian izandako erasoak kopuruak ikus daitezke.

Batzuen azpian eta besteen aurrean kokatu zuten Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguneko elkarretaratzea. Bat egin zuten gehienak ordurako iritsi ziren, eta ez zutenei, zapi morea eman zieten eutsi edo lepo inguruan jar zuten. Ordu laurden inguru iraun zuten ekintzak eta minutu horietan beste zenbait lagunek ere beren lekua hartu zuten zabal-gunean. Txaloeek isiltasuna eten

zutenean, pankarta eusten zegoen Encarni Baztan del Riok idatzi bat irakurri zuen.

Indarkeria gaitzetsi eta aurrean bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako 52 emakumeak gogoratu zituen. "Datu beldurgarri" horri gehitzen zaizkio salaketan, epaiketean eta ezarritako zigorrak. "Beharrezkoak izango dira, baina benetan ezertarako balio al dute? Erantzukizuna oinarritzea da eta denona da".

Indarkeria matxistak eta bestelako edozein indarkeriek "gure herria pobretzen" dutela nabarmendu zuen, eta amaitzeko, eskatu zuten Lasarte-Orian egon daitezela emakumeak babesteko neurriak: telefonoak, aholkularitza eta babesa.

Horren ostean, Okendoko ekintzarekin bukatzeko, bozeramaileen batzordean onartutako udal adierazpena irakurri zuen Nuria Fernandez zinegotziak.



Bea Egizabal clowna, emanaldi betean. TXINTXARRI



Udaleko, Foru Aldundiko, Espainiako Gobernuko eta Mestiza GKEko kideak elkartu dira aurkezpenean. TXINTXARRI

Liburuak, gizartea eraldatzeko tresnak

Bookstart Euskadi egitasmoa abian jarri dute Lasarte-Orian, 0 eta 3 urte arteko haurren irakurzaletasuna sustatzeko. Adin tarte horretako familiek liburu poltsa bana jaso ahalko dute, doan, eta Liburu Baby Kluba izeneko taldeko irakurketa saioetan parte hartu

Txintxarri

Mestiza izeneko Gobernu Kanpoko Erakundeak aurrera eramaten du Bookstart Euskadi proiektua, hainbat erakunderen laguntzarekin: Espainiako Gobernuko Haur Pobreziaren Aurkako Goi Mandataritza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Kooperazio, Kirol eta Gazteria saila eta tokian tokiko udalak. Lasarte-Oriakoa izan da ekimenarekin bat egiten azkena eta agerraldi bat antolatu du horren nondik norakoen berri izateko.

Haur Pobreziaren Aurkako Goi Mandatari Ernesto Gascok nabarmendu du "konbentzimendugatik" bakarrik ez, "sentimendugatik" aurrera eramaten dituzte la Bookstart Euskadiren gisako ekimenak. "Plazera da Foru Aldundiarekin eta Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean aritzea". Haurrei eta haien familiei banatuko dieten materiala "oso koloretu eta erakargarria" dela adierazi du eta "etorkizuneko gizartearen oinarri izango diren hel-

duak" formatzeko "aproposa" dela, irakurzaletasunaz gain hizkuntzak ikasteko bide ere emango dielako: euskara, gaztelania eta ingelesa. "0 eta 3 urteko haurrek garai horretan garatzen dituzte euren gaitasun kognitibo guztiak eta orduan ikasten dute espazioak, lengoaiak... erlaziozatzen".

Gizartean "berrinbertitzeko"

Mestiza elkarteko ordezkari Ana Molinak hartu du hitza gero, esateko gizarteko belaunaldi berriengan orain inbertitutakoa ez dela etorkizunean erabili beharko beste alor batzuetan. "Gizartean berrinbertitzea da Bookstart Euskadi, kulturaren bidez ezarrita dauden estereotipo ugari hautsi eta gizateria eraldatzeko". Jakinarazi du herrialde askotan garatzen duten egitasmo bat dela eta "ohorea" dela beraientzat Gipuzkoan gero eta dimentsio gehiago hartzea. Norabide horretan, erakundeen laguntza "berebizikoa" dela zehaztu du, adibidez, Liburu Baby Kluba (irakurketa

saioak haur eta familientzat) espazio publikoetan burutzen dutelako; gure herriaren kasuan, Udal Liburutegian.

Irakurketa saio horiek abenduaren 2an eta 16an izango dira ezagutarazi du udaleko Hezkuntza batzordeburu Maite Iglesiasek; 11:00etan hasiko dira biak. Lehen aipatutako hiru hizkuntzetan aurrera eramango dute eta literatura, musika, artea eta ingurumena sustatuko, doako irakurzaletasuna akuilatzearen bidez. Horrez gain, esan bezala, adin tarte horretako umeak dituzten familia guztiek eskutitz bana jasoko dute etxean, liburu poltsaren bila liburutegira bertara joan daitezten.

Foru Aldundiko Kooperazio buru Ana Priederen iritziz, horrelako egitasmoek laguntzen dute "gizarte anitz eta enpatikoa" eraikitzen. Udaleko Gizarte Zerbitzuetako buru Lourdes Acevedok, azkenik, balioan jarri du erakundeen arteko elkarlanak kasu honetan izan duen emaitza.



Ezker-eskuin: Esti Garmendia, Jon Martin eta Eukeni Garmendia, tunel atarian. TXINTXARRI

Plazaolako bidearen proiektua, Aldundiaren aurrekontutik kanpo

EH Bildurentzat "berebiziko garrantzia" du egitasmoak, eskualdeko mugikortasun, aisia nahiz turismo baliabide gisa

Txintxarri

Txanpinoien tunela ezizenez ezagutzen den zatia da Lasarte-Oria eta Urnieta udalerririk Plazaolako bide berdearen bidez lotzeko falta den bakarra. Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu horretan lanean hasteko asmoa adierazi izan du azken urteetan, 2022ko apirilean Europako Next Generation funtsetara hautagaitza aurkeztu eta aurtengo aurrekontuetan 130.000 euroko partida bat onartuta. Edonola ere, gaur-gaurkoz ez du "inolako lanik" egin bertan, Gipuzkoako Batzar Nagusietako, Lasarte-Oriako eta Urnieta EH Bilduko taldeetako ordezkari Jon Martin, Esti Garmendia eta Eukeni Garmendiak salatu dutenez.

Onartuta dauden partidak ez erabiltzearekin nahikoa ez, eta ordezkari horiek deitoratu dute EAJk eta PSE-EEK gobernatzan duten erakundeak datorren urteko aurrekontuetan ez duela euro bakar bat ere aurreikusitako: "Proiektu hori egikaritzeari uko egin nahi dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun sailak eta aurrekontu proposametik desagerrarazi". Jose Ignacio Asensiok gidatzen duen departamentuaren erabakia kritikatzear gain, EH Bilduk azpimarratu du egitasmo horrek "berebiziko garrantzia" duela aipatu bi udalerririk horientzat eta Buruntzaldearentzat, "mugikortasun, aisia nahiz turismo baliabide bezala". Hori dela eta, euren "aldeko jarrera" be-

rretsi eta iragarri dute Gipuzkoako Batzar Nagusietan datorren urteko aurrekontuen prozesuaren barruan ildo hori landuko dutela, "Lasarte-Oria eta Urnieta lotu eta Plazaolako bide berdearen proiektua behin-goz azkeneraino gauza dezaten".

Next Generation funtsak

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburu Javier Hurtadok 2022ko abenduaren iragarri zuten Plazaola, Urola eta Vasco-Navarro bide berdeetako proiektuan 2.560.000 euro bideratuko zituela, EH Bilduko ordezkariak gogorarazi dutenez. Bestalde, erakunde horrek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatu zuen aipatu egitasmo horietan 2.300.000 euro inbertitzeko.

Ildo horretatik, Foru Aldundiak "zentimo bat bera ere" exekutatu ez duela salatu dute agerraldian, nahiz eta aurtengo aurrekontuetan 130.000 euroko diru partida bat izan horretarako. Prentsaurrekoa aurrera eramane bitartean atzera eta aurrera ibili dira langileak. Horieta batek, Jose Antonio Sarasolak, *Aiurri* eta TXINTXARRI aldizkarietako kazetariekin hitz egin du egoera nola dagoen jakinarazteko: "Etorri izan dira ingeniari pare bat eta geologo bat eremua ikusi eta ur emaria neurtzera gunehonetan lan batzuk egiteko aurrekari gisa, baina denbora da Gipuzkoako Foru Aldundiak ezer gehiago jakinarazi ez digula".

Gaztainzulo argiztatzeko eskatu dute bizilagunek

Kale horretan bizi diren herritarrek hiru urte baino gehiago daramatzate etxeen atzealdeko pasabideetatik ilunpetan igarotzen. Udalak orain arte "kasurik egin ez diela" salatu dute. Erakunde horretatik esan dute argia izango dutela, abenduan ez bada, urtarril edo otsailan

Txintxarri

Gaztainzulo kaleko bizilagunak urduritzen hasten dira arratsaldeko bost eta erdiek jotzen dutenean, euren etxeen atzealdeko pasabideetan ez dutelako argi izpi bakar bat ere egunak ilunetzen duenean. Hiru urte baino gehiago daramatzate egoera horretan, eta, Lasarte-Oriako Udalaren atea behin baino gehiagotan jo badute ere, oraingoz behintzat ez du herritar horien arazoa konpondu. Egoeragatik kezkatu eta nazkatuta, TXINTXARRI aldizkariarengana jo dute, egunero bizitzen dutena zer den azaltzeko.

Argitasun faltak, besteak beste, lapurrak erakar ditzakeela azpimarratu dute. Horren adibide, bizilagunetako batek duela bi aste jasan behar izan zuena, bere bajoan sartu baitziren pertsona batzuk, ostera. Momentuz horrelako besterik ez dute pairatu, baina pasabideek erabat ilun segitzen duten artean

horrelako gertakari gehiago pasa daitezkeela uste dute. Horrez gain, egunero-egunero egiten dituzten gauza arruntak sufrikario dira eurentzat, hala nola, txakurrak paseatzea edota etxera igarobide horretatik bueltatzea. "Sakelako telefonoen linternak piztu behar izaten ditugu argitasun pixka bat izateko, baina ez da nahikoa. Bizilagunok tarte txar bat pasatzen dugu, batez ere, emakumeok", azpimarratu dute. Faroletako batzuk bonbilarik ere ez dute sikiera.

Gaztainzulo kalerantz doan pasabideetik egunez ala gauez igaro, ez du zerikusirik, artikuluhonetako bi argazkiek erakusten duten moduan. "Kontuan izan ilunpetakoak sakelako telefonoarekin atera ditugula eta gailu horien kamerek gaitasuna dutela berez dagoena baino argi gehiago jasotzeko. Pentsa zer ikusi dezakezun zure begiekin; ezertxo ere ez".

Egoera "arriskutsu" horren aurrean, udalarengana "behin eta berriro" jo dute konponbide eske, baina eremu horrek argiztatu gabe jarraitzen du. Dei ugari egin dituzte, eta, bizi dutenaren konstantzia gera dadin, beste hainbeste kexa jarri. Gaztainzulo argiztatzeko eskatzen jarraituko dutela garbi adierazi dute.

Otsailerako, berandueneguz

Udalarekin harremanetan jarri da TXINTXARRI eta Zerbitzu Publikoetako batzordeburu David Mateosek erantzun ditu aldizkariaren galderak. Kale horretako atzealdean falta diren faroletan argia jartzeko proiektu bat martxan dagoela jakinarazi du. "Abenduan ez bada, 2024 hasierako bi hilabeteetan gauzatuko da; argia izango dute". Aurreko lizitazioa egin zutenean "arazoak" izan zituztela esan du, irabazi zuen enpresak ez zuela dokumentazioa aurkeztu ere egin. "Herriko zenbait puntu



Gaztainzulo atzealdeko pasabidearen eremu bat, egunez eta gauez. Bizilagunek telefono mugikorren linternak erabili behar izaten dituzte. TXINTXARRI/GAZTAINZULOKO BIZILAGUNAK

beltz ezabatzeko pakete baten barruan doa Gaztainzuloko argiteriarena; administrazioaren urratsak errespetatu behar dira plegu eta lizitazioak egin behar direlako".

Gaztainzulo kaleko bizilagunen kexak jaso dituela onartzearekin batera nabarmendu du "pertsonalki" erantzun dituela, "idatziz edota telefonoz izan direnean, telefonoz".

Inauteriak, hizketagai

Landaberri ikastolak eta zentro horretako guraso elkarteak antolatuta, Euskal Inauteriei buruzko hitzaldi interesgarri bat eman du Oier Araolaza antropologo, idazle eta dantzariak Antonio Mercero aretoan. Ospakizun mota desberdinei buruzko azalpenak emateaz gain gisa horretako erritu eta festen jatorriaz mintzatu da.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Bost gutziak lotutako ibilbidea

Herriko bost taberna eta jatetxetan gutzia goxoak probatu dituzte Aterpea elkartearen IX. Pintxo Bidean parte hartu duten herritarrek. Araeta, Arima, Buenetxea, Herriko Etxea eta Plan B izan dira parte hartzera animatu direnak. Irabazlea nor den eta puntu gehien lortu dituen nor izan den jakiteko, itxaron egin beharko dute.



Islada Ezkutatuak elkarteko kideen lanaren emaitza da Frankismoaren biktima izandako lasarteoriatarrei omenaldia. TXINTXARRI

Esanahi berritua du Mirentxu eraikinak

Islada Ezkutatuak elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin lankidetzan, monolito bat jarri du Mirentxun. Etxearen inguruko lorategian dago eta Frankismoak jazarritako lasarteoriatarrek gogoratu eta omendu nahi dituen harriak

Maitane Aldanondo

Zenbait udal ordezkari eta 60 bat herritar bertaratu ziren azaroaren 26an Mirentxuren eraikin ondoan aurrera eramandako ekitaldira. Hitz egiten lehenak Islada Ezkutatuak elkarteko lehendakari Mailu Arruti eta Joxea Muguruza taldekidea izan ziren. Azken honek laburbildu zuen oroitarriaren zergatia:

"Frankismoaren basakeria pairatu zuten gizon, emakume eta haurrak oroitzeko".

1936-1950 arteko errepresioaz mintzatu zen eta hura pairatu zutenetako batzuk garai hartako Mirentxuren jabeak izan ziren. Herritik ihes egin behar izan zuten, bazekitelako tropa nazionalak iristean zain zuten patua: "Gizonentzat, zuloa eta

emakumeei... auskalo zer egingo zieten". Horregatik, harriak "bere bizitzarekin, gorputzarekin, jabetzarekin eta kulturarekin matxinatuek ezarritako odol kuota ordaindu zutenak" aintzatesten ditu.

Jarraian, alkateak giza esku-bideen aurkako erasoaren zenbait datu gogoratu zituen, Lasarte-Oria salbuespena izan ez



Oroitarria ikusgai jarri ondoren, dantzariak *Agurra* dantzatu zuten. TXINTXARRI

zela zehaztuz. "Lasarteoriatarrek azpiratuak izan ziren, eta etxe honetatik zuzendu zen erreprezio horren zati handi bat, nork biziraun eta nor exekutatu izan behar zen erabakita, jainkoak balira bezala". Oroimen historikoaren garrantzia ere nabarmendu zuen Valdiviak, "betebehar morala" izateaz gain, errepikatzea saihesteko ezinbestekotzat joz.

Udalak etxea erostean bere iraganaren berri ez zuela aitortu zuen eta esanahi berria ema-

tea "biktimei justizia egiteko modua" dela gehitu. Joseba Tapiak Gernikari buruzko abesti bat kantatu ondoren, Muguruzak modu zabalean azaldu zuen elkartearen lana, baita Frankismoaren jardunbide eta ondorioen zenbait zertzelada eman ere.

Amaitzean, Tapiak *Madrilgo lagunak* abestu zuen. Hala, oroitarria estaltzen zuen kentzeko unea heldu zen. Alkateak egin zuen, eta *Agurra* dantzatu zuten ere monolitoaren aurrean.



TXINTXARRI

Erasoa eteteko eskatu dute

Berrehundik gora lagunek bat egin zuten azaroaren 24an erdialdeko kaleetan barrena egindako protesta ekintzarekin. *Genozidioa amaitu, Palestina askatu* lelodun pankarta atzean Okendotik abiatu zen manifestazioa eta leku berean amaitu. Plazan, Liher

Unanuek, euskaraz, eta David Penak, gaztelaniaz, adierazpen bat irakurri zuten Israelen eraso eta zenbait euskal enpresen babesa gaitzetsiz. Ondoren, Tolosan bizi den Tamer Birawi palestinarrek egoeraren bere irakurketa partekatu zuen.



TXINTXARRI

Aldarrikapenak zabaltzen darrai

Hilabetero bezala, Azken Ostirala ekintza aurrera eramanean zuten Lasarte-Oriako Sarek. Plazara iristean ohiko adierazpena irakurri zuen Pili Kastresanak. Bertan, urrian aurkeztutako *Giltza* manifestua hedatzen eta atxikipenak batzen ari direla gogoratu zuen, eta bide horretan, hilaren 9an salbuespen politikaren gaitzespena Durangoko Azokara eramango dutela.

TXINTXARRI-k ere, greba

Orriz honen bidez TXINTXARRI-ko langileok ikusarazi nahi dugu bat egin dugula azaroaren 30eko greba feminista orokorrarekin. Zaintza krisia agenda publikoaren erdigunean egoteak duen garrantzia aldarrikatzen dugu. Ez da sektore bakar bateko arazoa; afera estrukturala da, norbanako guztioi eragiten diguna. Horrela, zaintza eskubide publiko eta kolektibo bat defendatzen dugulako batu gara lanuzte deialdira. Hala eta guztiz ere, greba feminista orokorraren berri emateko konpromisoa ere hartu du aldizkariak; horretarako, bezperan egin du lanuztea kazetarietako batek. Denon bizitzak, erdigunean!



TXINTXARRI

Euskarazko aisialdiaren alde

Pasa den ostiralean, azaroak 24, Gazte Klubean eta Kuadrillategin dabilzan gazteak Ttakunenean elkartu ziren euskararen aldeko argazki erraldoia ateratzeko. Aurreko saioetan egin zituzten afixa koloretsuen bidez, aisialdia euskaraz izatearen garrantzia aldarrikatu zuten.

Lasarte-Oriako ehun bat gaztek parte hartzen dute Ttakun Kultur Elkarteak aurrera eramaten dituen aipatu bi egitasmoetan. LH 3. mailatik hasi, eta 6. mailarainoko gazteei zuzendutako ekimena da Gazte Kluba, eta DBHkoek, aldiz, Kuadrillategin parte hartzen dute; ostiralero egin ohi dituzte saioak, batean zein bestean.



TXINTXARRI

Euskarazko produktuen eskaintza zabala

Euskarazko 8.000 produktu inguru eskaintzen ditu Euskarazko Produktuen Katalogoak. Herritarrak hori kontsultatzera animatu ditu udalak. Paperezko katalogoa banatu du, etxez etxe

Txintxarri

Urteko garai hau seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota jostailu eta jokoak oparitzeko sasoi paregabea izaten da; hala adierazi du Euskara Batzordeko buru Jon Antxordokik. Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria aurkezteko agerraldianegin ditu adierazpenok. Azaldu du, gainera, katalogoaren

edizio berria osatu dela eta Lasarte-Oriako etxetara banatzen ari direla, 16 urte bitarteko haur edota gazteren bat bizi den etxebizitza guztietara.

Webguneak zein paperezko edizioak, itxura berria dute aurten, eta dituen edukiak bi atal nagusitan antolatuak daude: 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin bata, eta 12-16 urte bitarteko gazteentzakoekin bestea.

Jakinarazi du baita ere www.katalogoa.eus ataria maiztasunez eguneratzen dela, argitaratzen diren produktu berriak sartuz, eta deskatalogatu direnak kenduz. Oraingoz 8.000 produktu inguru biltzen ditu, eta paperezko edizioaren atal berdina ditu webguneak ere. Baina ez hori bakarrik, atal bakoitzak bere direktorioa du eta, horrek, tipologia bakoitzeko produktuen bilaketa nabar-



Euskara batzordeburu Jon Antxordoki.

TXINTXARRI

men errazten da produktuak titularen, argitaletxearen, autorearen, adin tartearen edota prezioaren arabera bistara daitezkeelako. Erabiltzaileak produkturen bat begiz joz gero, argitaletxearen denda birtualera sartzeko modua izango du *Non eskuratu* botoia klikatuta.

Buletin elektronikoa

Azken nobedadeen berri izan nahi dutenei, www.katalogoa.eus atariak buletin elektronikora harpidetzeko bide ere ematen die; harpidedunek urtearen buruan hamar buletin jasoko dituzte, argitaratu berri diren produktuen erreferentziekin. Izan ere, horixe da webgunearen helburua: merkatuan aurki daitezkeen euskarazko azken nobedadeak ere erabiltzaileen eskura modu erraz batean jartzea.

Ahots lasarteoriarrek ere parte har dezaten nahi dute

Lasarte-Oriako Udalak GAITU programan ahotsa ematera deitu ditu herritarrak; programaren xehetasunak azaldu ditu

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik eta Ttakun Kultur Elkartearen lehendakari Mari Kar-

men Ormazabalak GAITU proiektua aurkeztu dute, eta hori herrian zabaltzeko asmoen berri ere eman dute. Prentsaurrekoan ondoan izan dituzte euskalgintzako bes-

te hainbat erakundetako ordezkariak, besteak beste, herriko ikastetxe guztietako irakasleen eta guraso elkarten eta euskaltegien ordezkariak.

Lasarteoriarrei ahots grabaketak egiteko gonbidapena luzatu diete: "Datu basea handitzeko herritarron beharra daukate, gure ahotsak behar dituzte".

Hortaz, euren ahotsa eman nahi dutenek, erraz egin dezakete hori. Edozein ordenagailu, sakelako telefono edo tablet-etik egin daiteke. Gaitu.eus web ata-

rian sartu beharko dute, eta "hitz egin" botoiari sakatu. Webguneak esaldi bat eskainiko die irakurtzeko, hortaz, esaldia esan, eta botoiarekin grabazioa amaituko dute. Lehenengoa egin ostean, beste esaldi bat eskainiko die, eta, horrela, bost grabatu arte. Ostean, "bidali" botoia sakatu beharko da, amaitzeko. Nahi adina esaldi graba ditzaketela ere ohartarazi dute. Gauzak horrela, ahalik eta lasarteoriar gehienek parte hartzea da proposamena.



GAITUren eskuorria. TXINTXARRI

Lizardiren omenezkoa, Euskararen Egunean

Bertso saioa antolatu dute Lasarte-Oriako Udalak, Ttakun Kultur Elkarteak eta Earra bertso eskolak, elkarlanean, Imanol Lizardi oroitu eta omentzeko. Antolatzaileek herritarrek deitu dituzte egitasmora joan daitezela. Sarrera doakoa izango da.

Txintxarri

Euskararen egunarekin bat eginez, udalak, Earra bertso eskolak eta Ttakun Kultur Elkarteak bertso saio berezi bat antolatu dute Imanol Lizardi omentzeko. Andoni Egaña eta Ane Labaka bertsolariak arituko dira oholtza gainean, eta Mailu Arruti arduratuko da saioa gidatzeaz.

Horren guztiaren berri eman dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordoki eta lehendabiziko lehendakaria izan zen Pello Sasiain; egungo Euskara batzordeko teknikari, Iñaki Arruti ere bertan izan da. Beraiekin batera, izan dira baita ere Ttakun KEko lehendakari



Lizardi, artxibiko irudi batean, Jalgin aurrera eramandako bertso saio batean. TXINTXARRI

ri Mari Karmen Ormazabal, eta Earra bertso eskolako Joxe Kruz Labaka ere.

Sasianek eta Antxordokik azaldu duten modura, Imanol Lizardi "bidaide" izan du udaleko Euskara Batzordeak 1986. urteko sorreratik hasi eta 2016ko *Irten armairutik* izenburuko Euskararen Maratoi gogoangarrira arte. Ttakuneko ordezkariak ere Imanol Lizardi Lasarte-Oriako euskalgintzan egindako lana azpimarratu dute, besteak beste, kultur elkarte horren sortzaileetako bat izan zelako.

Joxe Kruz Labakak bertso saiora joateko deia egin die Imanol ezagutu zuten guztiei eta ekimen berezi horretaz gozatu nahi duen edonor ere bertara dadin deitu du. Izan ere, bertsolari profesionalen parte hartzeaz gain, herritarren eta lagunaren emanaldiek ere osatuko baitute saioa. Ohiko bertso saioez gain, bertso jarri musikatuak ere izango dira, bertsolari diren eta izan diren herritar eta lagun zahar zein gazteek emanak.

Hitzordua etzi izango da, hilak 3, 18:00etan, kultur etxeko auditorioan. Sarrera doakoa izango dela jakinarazi dute antolatzaileek.



Lizardi eta Labaka, bertsotan. TXINTXARRI



Oientzeroren lagun, Imanol Lizardi. TXINTXARRI



Patxi Etxeberriarekin, bertsotan. TXINTXARRI

Zatoz
Lasarte-Oriara
doan
aterako zaizu!

gutxieneko erosketa
10€

BILA EZAZU BEREIZGARRI HAU



DOAN
PARKING
GRATIS
MURIAS LOIDIBARREN



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO



Euskadi, auzolana, bien común
ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATUTZA
ETA NONTZUAKO SALA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



Seniorrak garaile, Ostadarreko boleibol taldeen derbian

Taldeek Gipuzkoako txapelketako neurketa jokatu dute. Jubenilek egoera larrian jarri dituzte seniorrak azken bi jokoetan

Txintxarri

Gipuzkoako Ligako hasiera fasean Ostadar SKTko taldeen derbia izan zen azaroaren 26an. Senior eta jubencil taldeak aurrez aurre izan ziren eta zaharrenek euren esperientzia eta fisikoa baliatu zuten garaipena erdiesteko, 3-1.

Ostadarreko taldeen arteko lehen derbi ofiziala zen; neurketa berezia, beraz, bi taldeentzat. Euren onena emateko prest zeuden jokalaria. Hala ere, jubencil taldeek bazekiten ez zela neurketa erraza izango.

Hasieratik nagusi izan ziren Cristiana Hardman-ek zuzentzen dituen seniorrak; erasoan eta baloiak hartzean sendo ibili ziren. Jubencil, erantzuten saiatu arren, ez zuten jokoa sartzerik izan eta lehen bi setak 25-14 eskuratu zituzten zaharrenek.



Neurketako erremate bat. TXINTXARRI

Enara Hernandez eta Ekaitz Fernandez entrenatzaileen zuzenketak entzun eta indarberri-tuta atera ziren jubencil hiru-garren setean. Ondorioz, tantoak

eskuratzeko ederki borrokatu behar izan zuten bi taldeek. Baina jubencil aldea irekitzea lortu zuten eta 19-25 eskuratu zuten jokoa.

Seniorrek ez zuten amore eman eta erantzuna laugarren seta hasi bezain pronto etorri zen; sake indartsuei esker, 10-0 jarri zuten markagailuan.

Jubenilek, orduan, atseden denbora eskatu zuten eta prestatzaileen moldaketak entzun ostean, neurketa berdintzea lortu zuten.

Jarraian borroka handia izan zen puntuak eskuratzeko eta txandakatu puntuak lortu zituzten bi taldeek, baina, 22na zihozazenean, seniorrek berdintasuna hautsi eta partida irabazteko hiru tanto eskuratu zituzten.

Bi taldeak pozarren daude neurketarekin. Garaipenari esker, seniorrak lehen postuaren borrokan jarraitzen dute. Jubencil, berriz, neurketa egindako lana nabarmentzen dute, "zaila zen aurkariari beldurra sartu genion".



Taldeko kideak eta bikoteak mahaiaren inguruan bildu ziren. OSTADAR ZIKLOTURISMO TALDEA

Ostadar SKTko zikloturistek, irteera denboraldiari agur

2023ko martxotik urrira, txirindulari taldeko kideek 31 irteera eta guztira 2.141 kilometro egin dituzte

Txintxarri

Ostadar SKTko zikloturista taldeak, mahaiaren inguruan, 2023. urteko irteera denboraldiari amaiera eman zion.

Martxoan hasi zuten denboraldi txirindulariek eta urrian amaitu dute. Gipuzkoan eta beste hainbat lurraldeetan barrena 31 irteera egin dituzte aurten eta guztira, 2.141 kilometro batu dituzte.

Hurrengo urteko egutegia prestatzen hasi dira dagoeneko eta berrikuntza modura, Kantabria edo Asturias aldean ibilbideren bat egiteko aukera aztertu dute.

Horrez gain, arduradunek txirringaz eta errepideaz gozatu nahi duten herritarrei dei egiten diete taldearekin bat egitera. Interesdunek taldeko arduradunarekin jarri behar dute harremanetan, 629 536 320 WhatsApp zenbakian.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Intxaundi KE - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Cesar Benito, Donostian.

GORENGOEN MAILA

Hondarribia FE - Ostadar SKT
Larunbata. 11:30. Ondartza, Hondarribian.

ERREGIONALEN I. MAILA

Ostadar SKT - Euskalduna A. SD B
Larunbata. 18:30. Michelin kirol gunean.
Texas Lasartearra CF - Lazkao KE
Igandea. 11:25. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO JUBENILA

Ostadar SKT - Lengokoak SD
Larunbata. 16:35. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN I. MAILA

Ostadar SKT C - Danena KE C
Larunbata. 12:55. Michelin kirol gunean.
Lazkao KE B - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 15:30. Arizti Handi, Lazkaon.
Touring CD C - Ostadar SKT B
Igandea. 16:00. Fanderia, Errearterian.

OHOREZKO KADETEA

Beti Ona CD - Ostadar SKT
Igandea. 13:00. Beraun, Errearterian.

KADETEEN I. MAILA

Ostadar SKT C - Internacional CD C
Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunean.
Idiazabal KE - Ostadar SKT B
Larunbata. 15:20. Arizkorreta, Idiazabal.
Hernani CD - Ostadar SKT (neskak)
Igandea. 11:45. Zubipe, Hernanin.

INFANTIL HANDI, KOPA

Ostadar SKT - Mundaiz SCD
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

INFANTIL TX., TXAPELDUNEN FASEA

Ostadar SKT - Elgoibar CD
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

INFANTILEN I. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA

Amara Berri KE - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 09:00. Martutene, Donostian.

INFANTILEN I. MAILA, UDABERRIKO KOPA

Ostadar SKT - Hondarribia FE B
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

I. MAILA

Eguzki AF Reh. Arkupe - Egintza KE
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

III. MAILA

Irun Futsal Gabarrari CD - Eguzki ISU
Leihoak
Ostirala. 21:00. Artaleku kirol., Irunen.

GAZTEEN MAILA

Laskorain KE - Eguzki B. Ayesa
Larunbata. 12:30. Usabal kirol., Tolosan.

KADETE MAILA

Lauburu KE Ibarra B - Eguzki G. Goxua
Larunbata. 14:30. Belabieta kirol., Ibarra.

INFANTIL MAILA

Aloña Mendi KE B - Eguzki B. La Escalerilla
Igandea. 10:00. Zubikoa kirol., Oñatin.

SASKIBALOA

I. MAILA

CD Internacional - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Mons kirol., Donostian.

III. MAILA

Ostadar SKT - Oiarso OSKT
Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT - Inar Optika ISB
Larunbata. 12:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDU URREA

Ostadar SKT - Arri BKL Pagoeta
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE PARTAIDETZA

La Cerve Askatuak - Ostadar SKT
Igandea. 12:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.

INFANTIL ERRENDIMENDU URREA

Ostadar SKT - Bera Bera
Larunbata. 10:00. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL PARTAIDETZA

Eibar Saskibaloia infantil - Ostadar Beltza
Larunbata. 11:30. Ipurua kirol., Eibarren.
Ostadar SKT - SasakiAxular Pagola

Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
Ostadar Urdina - Oiarso Lezo SKT 2011

Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA

Ostadar SKT - Udapa Jatorkide Jubenila
Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Ostadar SKT - Navarvoley B

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

JUBENIL-SENIOR MAILA

Ostadar SKT - Hernani KE 1
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Harresi 1 - Ostadar SKT (S)

Igandea. 13:30. Ondartza, Hondarribian.

KADETE MAILA

Ostadar SKT - Aldapeta Maria B
Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.

INFANTIL MAILA

Ostadar SKT A - Aldapeta Maria
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT B - Harresi 3

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

IGERIKETA

NEGUKO LIGA

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak
Neguko Ligako hirugarren jardunaldiari egingo diote aurre.

Larunbata. 15:00. Udaleku kirol., Hernanin.

PILOTA

ESKUZ BANAKA, 1. INFANTILA

Behar Zana - Intza KE (Jauregi)

Ostirala. 18:00 (1. partida). Udaleku pil., Adunan.

ESKUZ BANAKA, 2. INFANTILA

Mundarro - Intza KE (Iparragirre)
Ostirala. 17:30 (3. partida). Udaleku pil., Astigarragan.
Hernani - Intza KE (Lopez)

Larunbata. 15:30 (2. partida). Udaleku pil. Hernanin.

Intza KE (Maiz) - Hernani

Larunbata. 15:30 (1. partida). Michelin kirol guneko pil.

ESKUZ BANAKA, 3. INFANTILA

Gazteleku - Intza KE (Lizarraga)
Ostirala. 18:15 (2. partida). Arrate, Andoainen.

JUDO

ESPAINIAKO TXAPELKETA

LOKEko Asier Sagastik beterano mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du.

Igandea. 09:30. Navarra Arena, Iruñea, Nafarroan.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Urgozo Rugby Kluba - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT
Larunbata. 16:30. Larrea kirol., Amorebieta, Bizkaian.

18 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak RT - KyB Hernani CRE
Larunbata. 11:30. Asti, Zarautzen.

16 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak RT - Viateg Hernani CRE
Larunbata. 10:00. Asti, Zarautzen.

ATLETISMO

IRUNGO HIRIKO KROSSA

Lasarte-Oriako hainbat kirolarik 55. Irungo Hiriko Krossean lehiatuko dira.
Igandea. 10:00. Txingudi ik., Irunen.

PROBA LIBREAK

Ostadar SKTko zein herriko atletiek proba libreetako lehen saioa dute.
Igandea. 10:00. Antonio Elortza bel., Donostian.

TXINTXARRI-k ere, greba

Orriz honen bidez TXINTXARRI-ko langileok ikusarazi nahi dugu bat egin dugula azaroaren 30eko greba feminista orokorrarekin. Zaintza krisia agenda publikoaren erdigunean egoteak duen garrantzia aldarrikatzen dugu. Ez da sektore bakar bateko arazoa; afera estrukturala da, norbanako guztioi eragiten diguna. Horrela, zaintza eskubide publiko eta kolektibo bat defendatzen dugulako batu gara lanuzte deialdira. Hala eta guztiz ere, greba feminista orokorraren berri emateko konpromisoa ere hartu du aldizkariak; horretarako, bezperan egin du lanuztea kazetarietako batek. Denon bizitzak, erdigunean!

Herritarrak ederki jardun dira proba ezberdinetan

Lasarte-Oriako kirolariak zein herriko elkarteetako ordezkariak errepidean eta pistan lehiatu dira. Luzera ezberdinetako lasterketetan parte hartu dute, baita jaurtiketa eta jauzi probetan ere. Horrez gain, LOTMEk urteko azken irteera antolatu du

Txintxarri

Azaroaren 26an, 5.690 korrikari bildu ziren Donostia. Zurich Donostia Maratoia, maratoni erdia eta 10 kilometroko probak lehiatu zituzten kirolariek eta lasarteoriatarrek edo herriko taldeetako ordezkariak proba ezberdinetan parte hartu zuten.

Proba nagusian, Ostadar SKTko Sergio Ramirez izan zen herritarren artean azkarrena. Ramirezek bere marka ondu zuen helmugan 02.33.00 eginez. Eguneko proba motzean, aldiz, Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza izan zen lasarteoriatarren artean lehena; 10 kilometroak 34.04an egin zituen.

Egun bat lehenago, Azkoitiko Raka herri lasterketan ere izan zen herritarrik, Erik Serrano. 43.28 behar izan zituen probako 10 kilometroak egiteko.

Lehen postuetan

Errepidetik pistara eginez, Ostadar SKTko atletek jaurtiketa



Sergio Ramirez (urdinez), Lasarte-Oria Bai! krosetan parte hartzen. TXINTXARRI

eta jauzi proba libreak izan zituzten azaroaren 23an, Eibarren. Pausoz pauso txapelketa garrantzitsuetan parte hartzeko baliagarri izango diren markak eskuratzen ari dira herriko kirolariak.

Hodei Garciak lehen postuan amaitu zuen xabalina jaurtiketa saioa. 700 gramoko trenarekin 45,07 metroko marka eskuratu zuen gazteak.

Unax Riezu eta June Garcia, aldiz, luzera jauzi proban lehiatu ziren. Riezuk 5,90 metroetara egin zuen jauzi eta probako lehen izan zen. June Garcia, aldiz, laugarren izan zen 4,57 metroko markarekin.

Txindokira irteera

Urtero moduan, Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartek Txindokira igotzen emango die amaiera urteko jardueri. Aurten hilaren 17an izango da hitzordua. Egun erdiko txangoa bazkide eta elkarteko lagunei zuzendua dago. Ibilaldia amaitu ostean, hamaiketako izango da indarrak berreskuratzeko. Izena ematea mendi elkartearen webgunean egin behar da, horretan ibilaldiko informazio osatua ere eskura daiteke.

Eguzkiko infantilek borrokatuz itzulua eman diote neurketari

Eguzki Bar La Escalerilla Lauburu KE Ibarra Neskak taldearen aurka neurtu ditu indarrak; 3-1 gailendu da

Txintxarri

Eguzki Bar La Escalerilla infantil taldeak Lauburu KE Ibarra Neskak taldearen aurka neurketa borrokatua jokatu zuen azaroaren 25ean, Maialen Chourraut kiroldegian. Bigarren zatian emaitzari itzulua eman eta garaipena erdietsi zuen etxeko taldeak.

Eguzkiko jokalariek ez zuten lehen zati ona izan. Defentsan ahul ari ziren; presioak ez zuen bere helburua betetzen eta aurkariak lasai jokatzen zuen. Erasoan ere zailtasunak izan zituz-



Neurketako irudia. TXINTXARRI

ten; Ibarra taldearen defentsa irmoa eta atezaina gaitzizkoa ezinezkoa izan zen etxeko taldearentzat.

Atsedenaldira iritsi baino lehen, gainera, ezusteko batean aurkaria markagailuan aurreratu zen eta gutxira bigarren gol bat egiteko aukera izan zuen.

Entrenatzailearen hitzak entzun eta mentalitate aldaketa egon zen infantil mailako jokalarietan. Lehen minutuan Eguzkik norgehiagoka berdindu zuen penalti bati esker. Erasoan ate aurrera iritsi eta aukera ederrak izan zituen talde hori-beltzak. Horri esker, bigarren gola etorri zen eta azken minutuan bakar-kako jokaldi baten ostean, 3 eta 1ekoa eskuratu zuen etxeko taldeak.

Era horretara, lehen postuetako lehiari mantentzeko garrantzitsuak ziren hiru puntu batu zituen infantil taldeak; egun herriko taldea bosgarren postuan da, hirugarrenetik lau puntura.

Final laurdenetan amaitu da Munduko Txapelketako ametsa

Jon Martin kide duen 17 urtez azpiko Espainiako selekzioak ezin izan du Alemania garaitu

Txintxarri

Ez da posible izan. 17 urtez azpiko Espainiako selekzioak ezin izan zuen hilaren 24an Alemania gaitziz. Jon Martin herritarra hamaikakoan izan zen eta saiatu arren, ezin izan ziren euren mailako Munduko Txapelketako finalerdietarako sailkatu.

Gorriek neurketa ona jokatu zuten. Baloia jabetza izan, erritmoa ezarri eta aukera ugari sortu zituzten. Jose Lanaren jokalariek ate aurrean ez zuten zortzerik izan, ordea eta husna iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian, joko dinamikak berdindaritu zuen. Baina penalti batek Espainiako taldearen ametsa zapuztu zuen, finalerdietara iristea. Hector Fortek Paris Brunner alemaniarra lurrera bota zuen eta Brunnerrek berak gola egin zuen.

Azken minutura arte, neurketa berdintzeko borrokatu ziren Jon Martin eta bere taldekideak eta atea aurre iritsi arren, ezin izan zuten baloia sarera bidali. Beraz, 0-1eko emaitzarekin Alemaniak egin zuen aurrera txapelketan.

Sanchez eta Zabala errugbilariak Kataluniaren aurka jokatu dute

16 urtez azpiko Katalunia-Euskadi neurketan, katalanak euren nagusitasuna erakutsi eta 50-3 irabazi dute

Txintxarri

Beltzak RTko harrobiko kide Eneko Sanchez eta Lander Zabala Erkidegoen arteko Selektzioen Espainiako txapelketako bigarren jardunaldian parte hartu zuten Euskadiko selekzioarekin, azaroaren 26an.

Sant Boi de Llobregat-era (Herrialde Katalanak) bidaiatu zuten bi herritarrak 16 urtez azpiko Kataluniako taldearen aurka jokatzeko. Sanchez hamaikostekoan izan zen. Zabala, berriz, 41. minutuan sartu zen



Euskadiko taldea. EUSKADI RUGBY

zelaira kide batek min hartu zuelako.

Hasieratik kataluniarrak nagusi izan ziren. Euskadiko gazteek eraso eusten saiatu arren,

Taula Xake Klubak, lan ona Gipuzkoako txapelketetan

Taula Xake klubeko kideek barkarkako bigarren zein hirugarren mailako Gipuzkoako txapelketa amaitu dute. Azaroaren 25ean Donostiako eremuko azken jardunaldia jokatu zen.

Azken neurketak jokatu ostean, bigarren mailan lehiatu den Taulako Jose Ignacio Etxeberria zortzigarren postuan sailkatu da. Hirugarren mailan, berriz,

lehen hamarren artean izan da Juan Cruz Figueras; bederatzigarren amaitu du lehia. Juan Luis Varela (11. postua), Ander Etxauri (15. p.) eta Alejandro Sanchez (21. p.) izan dira herriko taldeko ordezkariak.

Baina ez dira Gipuzkoako mailako lehiak amaitu. Hilabete amaieran, beterano mailako txapelketari aurre egingo diete maila horretako Taulako kideek. Horrez gain, hurrengo urteko taldeko txapelketarako prestatzen ari dira.

eguberrietako kanpaina

Erosi Lasarte-Orian eta lortu Eguberrietako sorta aparta!



Lasarte-oria 2023

Abenduaren 1etik 22ra

KONTSULTA EZAZU ESTABLEZIMENDU PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA

BIZKER RÓTULOS

DECO 75 TEXTIL HOGAR

CLÍNICA DENTAL ALDAZ

BERASATEGI KAFEAK

ELECTRICIDAD ARREGUI

BIDEO LAGUNAK

ORBELA EKODENDA

SILVIA LUIS ARBIZU ADMON. DE FINCAS

MULTIÓPTICAS LASARTE

IMAGINE JANTZI DENDA

VENTANAS ALCAR

FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA

PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA

MERCERÍA OLMÍ

MABEL MODA

PODOLOGÍA AMAIA OLONDRIS

CALZADOS LEDER

PELUQUERÍA MARBELL

ZAPATERÍA ITURBE

URRUZOLA MERTZERIA

FERRETERÍA SUKOA

ADATS ORRAZTEGIA

PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA

ALBA MODA

ORMAZABAL LORADENDA

NOGUES MODA

LOTERÍA IZAGUERRI+C

SANTANA INFORMÁTICA

OIHANA ESTETIKA

HALCÓN VIAJES

PELUQUERÍA BEA

LILURA LIBURUDENDA

ÓPTICA LIZARRI

VENTANAS ISU LEIHOAK

ADMON. DE FINCAS MILLA

CAFÉ-BAR BUENETXEA

BOTE TATOO



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO




Euskadi, auzolan, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZORION AGURRAK



Jon
Zorionak gure etxeko txikiari. 7 muxu erraldoi familia guztiaren partetik.



Aitor
Zorionak Aitor!!! Ondo pasa Pirata!!! Muxu potolo bat zure gurasoen partez, asko maite zaitugu!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/ zorionagurra.
- Erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzaileekin ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 1	GIL
LARUNBATA, 2	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 3	ACHA-ORBEA
ASTELEHENEA, 4	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 5	LASA
ASTEAZKENA, 6	DE ORUE
OSTEGUNA, 7	ACHA-ORBEA
OSTIRALA, 8	DE ORUE
LARUNBATA, 9	DE ORUE
IGANDEA, 10	DE ORUE
ASTELEHENEA, 11	LASA
ASTEARTEA, 12	URBISTONDO
ASTEAZKENA, 13	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 14	LASA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Beltzak RTren saskia

Jaki eta edariz betetako saskia zozketatuko du aurten ere Beltzak RT taldeak. Gure Etxean tabernan edo Errugbi taldeko kide zein eskolako jokalariek saltzen dituzte tiketak euro batean. Bildutako dirua eskolako gastuetarako erabiliko da. Saskia Gure Etxea tabernan dago ikusgai.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen (Oriarte Landaberri eraikinean) biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

ESKERTZA



Errigora taldekoen esker hitzak

Lasarte-Oriako Errigora taldeko kideak pozarren daude udazkeneko kanpainako saskiak banatu eta gero eta eskerrak eman dizkiete herritarrei Nafarroa hego eta erdialdeko ekoizleen lana eta euskara sustatzeko lan egiten duen eragilearen egitasmoan parte hartu izanagatik. "14.000 saski banatu ditugu Euskal Herrian eta eremu horri 185.000 euroko ekarpena egin. Argazki bete-betean osatu dugu ekoizle, euskaltzale, auzogile eta milaka kontsumitzaileekin!".



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsalde deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKAINITZA

Lanaldi erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabeitza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxee-

tan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketara...) FP-2 mekainatua egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko

eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

Hurrengo txintxarri paperean
abenduarien 15ean argitaratuko dugu

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julien Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN
ARRATSALDEA BAINO LEHEN. Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@takun.eus

LARUNBATA 2



LASARTE-ORIA Jaialdia

Jaizaleak, jostariak, jakintsuak, jatunak, jeniudunak... Jalgune elkarteak J hizkidun pertsonen eguna ospatzera deitu ditu herritarrek; bere XVII. Jaialdia aurrera eramango du. Larunbat honetan izango da hori, hilak 2. 18:30ean hasiko da ikuskizuna eta bertaratu nahi dutenek gonbidapenak eskuratu beharko dituzte Manuel Lekuona Kultur Etxean. TXINTXARRI aldizkariarekin elkarlanean, ekimen hori iragartzeko kartela elkarrekin prestatu dute eta hedabideak jardura bidez grabatuko du. *Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:30ean.*

LARUNBATA 2

LASARTE-ORIA Literatura

Bookstart Euskadi egitasmoaren barruan, Liburu Baby Kluba taldeko lehen irakurketa saioa aurrera eramango dute 0 eta 3 urteko haurrentzat eta haien familientzat. Doako jardura da. *Udal Liburutegia, 11:00etan.*

LASARTE-ORIA Jaialdia

Jalgune elkarteak XVII. Jaialdia aurrera eramango du, J hizkidun pertsonen eguna ospatzera deituta herritarrek. Ikuskizunera bertaratu nahi dutenek gonbidapenak eskuratu beharko dituzte kultur etxean. *Kultur etxea, 18:30ean.*

LASARTE-ORIA Barrikotea

Lasartearra elkarteak kideek barrikotea egingo dute Bereziartuako sagardo eta menu goxo batekin. *Erribera kalea 10, 20:30ean.*

IGANDEA 3

LASARTE-ORIA Jaia

Decebal elkarteak Errumaniaren Eguna ospatuko du. Herrialde

horretako jakiak dastatu eta zuzeneko musika emanaldiaz gozatu dute bertaraten direnek. *Gizarte Etxea jatetxea, 14:30etik aurrera.*

LASARTE-ORIA Emanaldia

Euskararen Egunarekin bat eginik, Imanol Lizardi euskaltzale lasarteoriatarra omenduko dute. Herrian egindako lanaren trukean jasoko du aintzatespena. Hura ezagutzen zuten herritarrek ekimenera joan daitezten deitu dituzte antolatzaileek. *Kultur etxea, 18:00etan.*

ASTEARTEA 5

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Nagusilan elkarteak *Las relaciones afectivas y su influencia en la salud* hitzaldia antolatu du. Albertina Fernandez psikologoaren eskutik. *Antonio Mercero aretoa, 16:30etik 18:00etara.*

ASTEAZKENA 6

LASARTE-ORIA Omenaldia

Enas Solidarias boluntario kolektiboak aintzatespen ekitaldi bat aurrera eramango du zeregin horietan aritzen diren herritarren jarduna aitortze aldera.

11:30ean, meza bat egingo dute San Pedro parrokiari.

Elizkizuna amaitzean, Atsobakar parkean dagoen monolitara joan eta lore eskaintza bat egingo dute Ixabel Zuaznabar eta Juanjo Mendiluce senar-emazte zirenen omenez.

San Pedro parrokia, 11:30ean.

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA Literatura

Bookstart Euskadi egitasmoaren barruan, Liburu Baby Kluba taldeko lehen irakurketa saioa aurrera eramango dute 0 eta 3 urteko haurrentzat eta haien familientzat. Doako jardura da.

Udal Liburutegia, 11:00etan.

Kontsultatu
agenda
hemen



Jaiotzen 30. lehiaketa iragarri du Danok Kidek

Gabonetan murgilduko gara konturatzeko, eta Danok Kide Elkarteak Jaiotzen 30. Lehiaketa aurrera eramango du. Bertan parte hartu nahi dutenek zenbait oinarri hartu beharko dituzte kontuan; 6 urtetik gorako herritarrek parte har dezakete

Txintxarri

Hilaren 21ean eta 22an entregatu beharko dituzte lanak, elkarteak Blas de Lezo kalean duen egoitzan. Sariak, berriz, hilaren 30ean banatuko dituzte, eguerdian, aipatu leku berean.

Lehiaketan parte hartzeko, ordea, zenbait oinarri bete beharko dituzte herritarrek. Sei hauek dira: Jaiotzek 80x60 zentimetrokoak izan behar dute asko jota. Hondo sendoa duen egiturarik ez dute onartuko antolatzaileek, eta noizbait beste lehiaketaren batera aurkeztutako lanik ere ez; banaka nahiz taldeka parte har dezakete herritarrek. Norbanako edo partaide multzo

bakoitzak jaiotza bakar bat aurkeztu ahal du; gutunazal itxi bat entregatu beharko dute jaiotzarekin batera. Kanpoko aldean adina idatzi behar du partaideak, eta barrukoan, izen-abizenak, telefono zenbakia eta helbidea; aurkeztutako lanak kalitate nahikoa ez dutela ondorioztatuz gero, epaimahaiak saririk gabe utz ditzake kategoriak; banakako parte hartzaileek zein taldeek lan bakarria aurkez dezakete; eta, jaiotzak 2023ko hilaren 21ean, ostegunarekin, eta 22an, ostiralarekin, entregatu behar dira, Blas de Lezo kaleko 11 eta 13. zenbakian, arratsaldeko bostetatik zazpietara.

Partaideak lau kategoriatan banatuko dituzte: 6 eta 9 urte artekoak (A kategoria), 10 eta 13 urte artekoak (B), 14 eta 17 urte artekoak (C) eta 18 urtetik gorakoak (D). Danok Kideko lagunek zehaztu dutenez, aurkeztu ostean onartua izan den jaiotza bakoitzaren egileak 15 euro jasoko ditu. Multzo bakoitzeko garaileek sari hauek jasoko dituzte: A kategorian, lenearentzat 70 euro eta bigarrenarentzat, 50 euro. B kategorian, lehenarentzat 80 euro eta bigarrenarentzat 60 euro. C kategorian, 100 euro lehenarentzat, eta 70 euro bigarrenarentzat. Eta, azkenik, D kategorian, 130 euro lehenarentzat eta 100 euro bigarrenarentzat.



TXINTXARRI

San Pedroko meza girotu dute

Santa Zezilia eguna ospatu zuten herriko musikariek azaroaren 22an eta batzuek egunean bertan herriko kaleak girotu zituzten. Alboka abesbatzak kideek, berriz, San Pedro parrokiako mezan abestuz omendu zuten zaindaria, 26an. Korutik aritu ziren elizkizuneko zenbait unetan eta *Agur Jesusen Ama* kantarekin amaitu zuten.



IMANOL LIZARDI

gogoan

bertso-saioa

Herritar eta lagunen emanaldiak

Abenduaren 3an, 18:00etan
Manuel Lekuona
kulturetxean
Sarrera doan

Bertsolariak
Andoni Egaña eta Ane Labaka
Aurkezlea
Mailu Arruti

LASARTE-ORIA **Takun** LASARTEKO BERTSO ESKOLA



GABONETAKO zenbaki BEREZIAK

ABENDUAREN 22AN ETA 29AN

Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus
943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

txintxarri

AUZOLAN DIGITALA

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan
Erronka berri bat dugu!

Euskal hiztunen laguntza beharrezkoa da

BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK

TEKNOLOGIARI EUSKARAZ IRAKASTEKO

GAITU.EUS

-en sar zaitez

Ahots grabaketa sorta erraldoia sortu nahi da milaka ahots lortzea eta euskarazko ahotsen datu basea ahalik eta gehien handitzea.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Euskadi, **Erakunde Publikoa**

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

2023

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

HIRUKO ITUNA
Euskara sustatzeko ituna

3n

euskaltzeen topagunea

ERAZABE 2023